

## Normalizazio Txostena

### 1. DATU OROKORRAK

<b>Txosten zk.</b>	0000/000
<b>Data</b>	0000-00-00

<b>Aztergaia</b>	
<b>Eskaeragilea</b>	
<b>Xedea</b>	
<b>Proiektua</b>	

### 2. INFORMAZIO TERMINOLOGIKOA

<b>TR</b>		<b>KG</b>		<b>IT</b>	
<b>SN</b>		<b>KG</b>		<b>IT</b>	
<b>EE</b>				<b>EK</b>	

<b>DF</b>		<b>IT</b>	
<b>OH</b>		<b>IT</b>	
<b>TS</b>		<b>IT</b>	
<b>IR</b>		<b>IT</b>	

<b>es</b>		<b>IT</b>	
<b>fr</b>		<b>IT</b>	
<b>en</b>		<b>IT</b>	
<b>de</b>		<b>IT</b>	
		<b>IT</b>	



**Adituengandik bilduak**

	IT	
	IT	

**4. PROPOSAMENA**

TR		KG		IT	
Arrazoibidea					

**Forma baztertuak**

TR		KG		IT	
Arrazoibidea					

**OHARRAK**

--

**5. ITURRIAK**

Txostena egitean aipa daitezkeen obra nagusien kodeak zehazten dira ondorengo taulan (Euskaltermeko kodeak dira). Taulan agertzen den obra bat aipatzean, kode normalizatu hori erabili beharko da. Era berean, taulan ez dagoen obraren bat aipatu behar izanez gero, txostenean erabili den kodea eta kode hori deskodetuko duen azalpena gehituko dira taula honetan.

<b><u>Kodea</u></b>	<b><u>Azalpena</u></b>
3100	EUROPEAN COMMISSION TRANSLATION SERVICE: <i>Eurodicautom</i> datu-bankua: <a href="http://europa.eu.int/eurodicautom/Controller">http://europa.eu.int/eurodicautom/Controller</a>
AI91	OFFICE DE LA LANGUE FRANÇAISE (Québec). <i>Le grand dictionnaire terminologique</i> : <a href="http://www.granddictionnaire.com">http://www.granddictionnaire.com</a>
AM16	TERMCAT. CENTRE DE TERMINOLOGIA: <i>Cercaterm. Servei de consultes terminològiques en línia</i> : <a href="http://www.termcat.net/cercaterm/">http://www.termcat.net/cercaterm/</a>
AM21	EUSKALTZAINDIA. <i>Hiztegi Batua</i> .
BA35	EUSKALTZAINDIA. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> . Bilbo: Mensajero; Desclee; Euskaltzaindia, 1995.
BA42	<i>Gran enciclopedia Larousse</i> . Bartzelona: Planeta, 1988-1992. 30 libk.
BA64	<i>Grand Larousse Universel</i> . Paris: Larousse, 1987-1989. 15 libk.
BB05	ELHUYAR. <i>Hiztegi entziklopedikoa</i> . Usurbil: Elhuyar, 1993.
BB19	BOSTAK BAT. <i>Diccionario Euskara-Castellano, Castellano-Euskara 3000 = Hiru Mila Hiztegia. Euskara-Gaztelania, Gaztelania-Euskara</i> . Bilbo: Bostak bat, 1996.
BB38	SARASOLA, I. <i>Euskal Hiztegia</i> . Donostia: Kutxa, Gizarte- eta Kultur Fundazioa, 1996.
BB97	ELHUYAR. <i>Elhuyar Hiztegia. Euskara-gaztelania. Castellano-vasco</i> . Usurbil: Elhuyar, 2000-2.

- BC13 REAL ACADEMIA ESPAÑOLA. *Diccionario de la Lengua Española*. Madrid: Real Academia Española, 2001.
- CD14 CANADIAN GOVERNMENT SERVICES. TERMIUM. *Le dictionnaire électronique bilingüe du Gouvernement du Canada = TERMIUM*. Kanada: Government Services Canada, 1999.
- Euskalterm Euskalterm datu-bankua: [http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm)
- FN35 Zabaleta, J. [zuz.]. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Lur, 1991.
- GZ49 AKORDAGOIKOETXEA, J. [zuz.]; SARASOLA, I. [c-e koord.]; ARRIGAIN, I. [e-g koord.]. *Hiztegi handia. Castellano-Euskara. Euskara-Gaztelania*. Bartzelona: Spes editorial, 2002.

## 6. ERABILITAKO LABURDURAK

<b>DF</b>	definizioa
<b>EE</b>	erabileremua
<b>EK</b>	erabileremuaren kodea
<b>IR</b>	irudia
<b>IT</b>	iturria
<b>KG</b>	kategoria gramatikala
<b>OH</b>	oharrak
<b>SN</b>	sinonimoa
<b>TR</b>	terminoa
<b>TS</b>	testuingurua/k

<b>de</b>	alemana
<b>en</b>	ingeleza
<b>es</b>	gaztelania
<b>fr</b>	frantsesa

**NORMALIZAZIO-TXOSTENA**  
**LANTZEKO GIDA**

2004ko apirilaren 22a

Terminologia Batzordeak aztertu beharreko terminologia-arazoak Normalizazio Txosten batean aurkeztu beharko dira. Txosten horri esker, eredu berean landu eta gorde ahal izango dira Batzordeak aztertutako eta erabakitako kasu guztiak. Normalizazio Txostenean, erabaki beharreko kasu konkretu bati buruzko informazio terminologikoa bilduko da, informazio hori oinarritzat hartu eta arrazoibide egokia eginez, proposamenak zehazteko. Hona hemen Normalizazio Txostena osatzen duten atalen azalpena:

## 1. DATU OROKORRAK

Txostenaren nolabaiteko goiburukoa eratuko du atal honek, eta txostena identifikatzeko datu orokorrak bilduko ditu:

- **Txosten-zenbakia**

Txostenaren erreferentzia-kode gisa erabiliko den zenbakia, urteaz gehi zenbaki kontsekutibo batez osatua (adibidez: 2004/001).

- **Data**

Txostena Terminologia Batzordean aurkezten den data.

- **Aztergaia**

Txostenean aztertzen den kasu terminologikoa.

- **Eskaeragilea**

Txostenean aztertuko den gaia nork aurkeztu duen zehaztuko da eremu honetan, hau da, nork eskatu duen kasu hori aztertzea. Aztergai terminologikoa Terminologia Batzordeak berak landutako gai-zerrendatik etorriko da, oro har; baina gerta liteke arazo terminologiko bat duen erakunde nahiz pertsona batek egitea eskaera.

- **Xedea**

Zein den txostenean aztertuko denaren azken xede edo helburua. Adibidez: euskaraz izendapen egokirik ez duen edo alternatiba bat baino gehiago dituen kontzeptu batentzat proposamen egokia egitea, termino baten erabilera desegokia baztertzea, erlazonaturiko termino-sail bati irtenbide bateratua ematea, mailegu bat onartzea edo baztertzea, eta abar.

- **Proiektua**

Aztergai den forma terminologikoa zein esparrutan/glosariotan integratzen den.

## 2. INFORMAZIO TERMINOLOGIKOA

Normalizatu edo aztertu behar den gaiari buruzko informazio terminologikoa bilduko da atal honetan. Horrela, kasuaren ikuspegi zabala bideratuko da, terminoari berari eta garrantzia duen inguruko informazioari buruzko datu terminologikoak eskainiz. Ondorengo datu hauek zehaztuko dira:

- **Terminoak (TR)**

Aztertuko den izendapen edo terminoa euskaraz. Ondoan, haren kategoria gramatikala (KG) eta nondik atera den adierazten duen iturria (IT) zehaztuko dira. Iturriak kode bidez adieraziko dira, eta *Iturriak* izeneko atalean bilduko dira kode horiek deskodetzeko azalpenak. Behar izanez gero, sinonimoa (SN) ere zehaztuko da, bere kategoria gramatikalarekin eta iturriarekin batera.

- **Sinomimoa/k (SN)**

Aztergai den formaren sinonimoa/k.

- **Erabileremua (EE)**

Terminoaren erabileremu espezifikoa zehaztuko da eremu honetan, zein jakintza-arlotan erabiltzen den mugatzeko eta kontzeptu-sistema edo testuinguru egokian kokatzeko. Ondoan, erabileremu hori identifikatzen duen kodea (EK) ezarriko da; Euskaltermen erabiltzen diren eremu-kodeak erabiliko dira horretarako.

- **Definizioa (DF)**

Termino bat finkatzeko, funtsezkoa da kontzeptua era argi eta zehatzean mugatuko duen definizioa ezartzea. Definizioaren iturria identifikatzen duen kodea ezarriko da ondoan.

- **Oharra (OH)**

Argigarri gerta daitekeen beste edozein azalpen ezar daiteke eremu honetan, iturria zehaztuz.

- **Testuingurua/k (TS)**

Argigarri gerta daitekeen testuingurua/k jasoko dira atal honetan.

- **Irudia (IR)**

Hala badagokio, aztergai den formaren argigarri izan daitekeen argazkia, marrazkia...

- **Beste hizkuntzetako ordainak**

Kontzeptu horrek inguruko hizkuntzetan dituen formak bilduko dira atal honetan, nazioarteko ikuspegi bat lortzeko. ISO arauak agindutako nazioarteko laburtzapenak erabiliko dira hizkuntzak adierazteko (**es, fr, en, de, it**, eta abar), eta, atal honetan ere, forma nondik atera den adierazten duen iturria zehaztuko da.

- **Erlazionatutako terminoak**

Aztertu behar den terminoarekin erlazioa —formaz edo semantikoki— duten terminoak zehaztuko dira atal honetan, baldin eta aztergaia mugatzeko edo testuingurua argitzeko beharrezkoak badira. Kasu honetan ere, termino nagusian adierazitako eremu guztiak zehaztu beharko dira: terminoa, kasu gramatikala, iturria, erabileremua, beste hizkuntzetako ordainak eta definizioa.

### 3. DOKUMENTAZIOA

Gaia behar bezala aztertzeko, beharrezkoa da dokumentu-arakatze bat egitea, hau da, euskarazko nahiz beste hizkuntzetako obra lexikografiko eta terminologiko nagusiak, datu-baseak, eta antzeko lanak kontsultatzea. Era berean, interesgarria izan daiteke gaiarekin harremana duten adituen iritzia jasotzea.

Kontsulta horien bidez bildutako informazioa zehaztuko da atal honetan. Jasotako izendapen edo lekukotasunaren ondoan, nondik jaso den adieraziko duen iturri-kodea ezarriko da.

Hiru ataletan sailkatuko da informazioa: euskarazko obrak, beste hizkuntzetako obrak, eta adituak.

#### 4. PROPOSAMENA

Atal honetan, normalizatu beharreko terminoari buruz Terminologia Batzordeari egiten zaion proposamena zehaztuko da. Proposamena egiteko, txostenean azaldu diren datu terminologiko guztiak eta dokumentazioa arakatuz bildutako informazioa aztertuko dira, eta ahalik eta modurik zorrotzenez aplikatuko dira, era berean, Terminologia Batzordeak terminologia-lanerako zehaztutako irizpide linguistiko, terminologiko edo soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak.

Ondorengo osagai hauek izango ditu proposamenak:

- **Terminoak (TR)**

Proposatzen den termino edo forma. Ondoa, haren kategoria gramatikala (KG) eta nondik atera den adierazten duen iturria (IT) zehaztuko dira.

- **Arrazoibidea**

Proposamen hori egitea justifikatzen duten arrazoiak zehaztuko dira eremu honetan, irizpide linguistiko, terminologiko edo soziolinguistikoetan/pragmalinguistikoetan oinarrituta, betiere.

Proposamenaren ondoan beste bi sail agertzen dira:

- **Forma baztertuak**

Proposatutako formaren ondoan, espresuki baztertu nahi den forma bat aipatu izanez gero, eremu honetan adieraziko da. Proposamenak bezala, kategoria gramatikala eta iturria izango ditu ondoan. Eta, forma hori baztertzeko arrazoibidea ere azalduko da.

- **Oharrak**

Nahi bada, proposamenari buruzko bestelako argibideak eman daitezke eremu honetan.

#### 5. ITURRIAK

Txostenean erabili diren iturri-kodeak (IT) deskodetzen dituzten erreferentzia bibliografikoak edo bestelako azalpenak zehaztuko dira atal honetan.

Lagungarri gisa, obra nagusi eta ohikoenen kodeak zehaztuta eskaintzen dira taula batean, kodearen arabera alfabetikoki ordenatuta (Euskaltermeko kodeak dira). Taulan agertzen den obra bat aipatzean, kode normalizatu hori erabiliko da. Era berean, taulan ez dagoen obra (edo aditu) bat aipatu behar izanez gero, txostenean erabili den kodea eta kode hori deskodetuko duen azalpena gehituko dira.

## **6. ERABILITAKO LABURDURAK**

Txostenean erabili diren laburduren (DF, EE, en, eta abarren) azalpenak eskaintzen dira.